## 1. OROKORREAN

| **6 – PILOTARIEN EGIAZTAGIRIA** | **6 – ACREDITACION DE LOS Y LAS PELOTARIS** |
|---|---|
| GAUR EGUN DAGOEN BEZALA:<br><br>Federazioaren lizentziarik ez bada aurkezten, haren ordez pilotariak edo taldearen ordezkariak denboraldi-hasieran EEPFk homologatutako zerrenda aurkeztu ahal izango du, pilotariaren akreditaziorako edozein agiri ofizialekin.<br><br>Gertakari hori epaileak jasoko du aktan. Pilotariak bere lurraldeko federazioan aurkeztu beharko du 72 ordu igaro aurretik bere lizentzia aurkezteko. Halaber, lurralde-federazioari 10 euroko zehapena ordaindu beharko dio lizentzia ez aurkezteagatik.<br><br>Pilotaria ez bada lurralde-federazioan agertzen, partidan agertu ez dela joko da, horrek dakartzan ondorioak bere gain hartuta.<br><br>ALDATU:<br><br>Federazioaren lizentzi fisikorik ez bada aurkezten, haren ordez pilotariak edo taldearen ordezkariak lizentzia birtuala edo denboraldi hasieran EEPFk homologatutako zerrenda aurkeztu ahal izango du. Zerrenda aurkeztuz gero, pilotariaren nortasuna egiaztatuko duen edozein agiri ofiziala ere aurkeztu beharko da.<br><br>Lizentzia birtual gisa zera hartuko da: federazio-lizentziaren kopia smartphone, tablet edo antzeko gailu mugikorrean aurkeztutakoa.<br><br>Zerrenda homologatua edo lizentzia birtuala aurkezten bada, epaileak aktan jaso beharko du.<br><br>Lizentzia fisikoa ez aurkezteagatik klubek 10 euroko isuna ordaindu beharko dute. | GAUR EGUN DAGOEN BEZALA:<br><br>En caso de no presentación de la licencia federativa, en su defecto el/la pelotari o persona delegada de club podrá presentar un listado homologado por la FPVE al principio de temporada acompañado de cualquier documento oficial de acreditación del pelotari o de la pelotari.<br><br>Este hecho será reflejado en el acta por el o la juez. El o la pelotari deberá presentarse en la FGPV a las 72 h. para mostrar su licencia y abonar a la federación territorial la sanción económica correspondiente a 10 euros por no presentar la licencia.<br><br>La no presentación en la federación de la correspondiente licencia supondrá la incomparecencia del partido con las consecuencias que ello conlleve.<br><br>ALDATU:<br><br>En caso de no presentación de la licencia federativa física, el o la pelotari o persona delegada de club podrá presentar una licencia virtual o un listado homologado por la FPVE. Si se opta por el listado homologado, habrá que acompañarlo de cualquier documento oficial de acreditación del o de la pelotari.<br><br>Como licencia virtual se entenderá una copia de la licencia federativa presentada en cualquier dispositivo móvil, tipo smartphone, tablet etc.<br><br>Tanto si se opta por el listado como por el dispositivo móvil, el juez o la jueza deberán reflejarlo en el acta.<br><br>La no presentación de la licencia física acarreará una sanción económica al club de 10 euros. |
| **10 – SAILKAPENAK ETA ZIGORRAK** | **10 – CLASIFICACIONES Y SANCIONES** |
| GAUR EGUN DAGOEN BEZALA:<br><br>Sailkapenerako partida irabaztea 2 puntu eta galtzea puntu bat kontsideratuko da. Talde baten lehenengo ez agertzea 0 puntu kontsideratuko da. Txapelketa osoan zehar egindako bigarren ez agertzeak lehiaketatik kanpo gelditzea eta talde horren diru-laguntza guztien galera suposatuko du.<br><br>(…)<br><br>Kluben batek norgehiagoka batera ez agertzeko asmoa GEPFri idatziz azalduko balio, honek aurkako taldeari idatziz | GAUR EGUN DAGOEN BEZALA:<br><br>A efectos de clasificación se concederán dos puntos por partido ganado y uno por perdido. La primera incomparecencia se considerará 0 puntos. La segunda incomparecencia de un equipo a lo largo del campeonato conllevará la eliminación automática del mismo y la pérdida de cualquier tipo de subvención.<br><br>(…)<br><br>En caso de que algún club notificara por escrito a la FGPV su intención de no acudir a la disputa de algún encuentro, |

| | |
|---|---|
| jakinaraziko lioke eta azken talde hau norgehiagokaren irabazletzat hartuko litzateke, pilotalekura joan beharrik gabe. Jakinarazpena aurkezteko epea ostiraleko 13:00ak izango da. | ésta se responsabilizará de comunicar por escrito el hecho al equipo contrario y a éste último se le considerará vencedor de la contienda sin necesidad de desplazarse hasta el frontón. La fecha límite para presentar dicha notificación será el viernes a las 13:00 horas. |
| Hortik aurrera, honela jokatu beharko da: norgehiagokara azaldu behar ez duen elkarteak GEPFri horren berri eman beharko dio, erantzungailuan mezua utzita edota mezu elektroniko bat helarazita. Ondoren, aurkariari jakinarazi beharko dio. | A partir de dicho momento se procederá del siguiente modo: el club que no vaya a acudir a la contienda deberá de dejar constancia en la FGPV de su intención dejando un mensaje en el contestador o enviando un mensaje electrónico y posteriormente notificará al club contrincante. |
| ALDATU: | ALDATU: |
| Sailkapena egiteko, irabazitako partida bakoitzeko bi puntu eta galdutako bakoitzeko puntu bat emango da. Jakinarazitako lehenengo ez agertzea 0 puntu izango da. Jakinarazitako bigarren ez agertzeak edo jakinarazi gabeko lehenengoak taldearen kanporatzea eta balizko diru-laguntza guztien galera ekarriko du. | A efectos de clasificación se concederán dos puntos por partido ganado y uno por perdido. La primera incomparecencia notificada se considerará 0 puntos. La segunda incomparecencia notificada o la primera sin notificar de un equipo conllevarán la eliminación automática del mismo y la pérdida de cualquier tipo de subvención. |
| (…) | (…) |
| Talderen batek ez agertzeren bat egin behar duela zuzen jakinaraziz gero, aurkako taldeari partida irabazitzat emango zaio pilotalekura azaldu beharrik gabe. | En caso de incomparecencia correctamente notificada, al equipo contrario se le considerará vencedor de la contienda sin necesidad de desplazarse al frontón. |
| Ez agertzea zuzen jakinarazitzat hartzeko, ondorengo protokoloa bete beharko da: | Para que una incomparecencia se considere correctamente notificada habrá que cumplirse el siguiente protocolo: |
| - Klubak ez agertzea egingo duela idatziz azalduko dio GEPFeri eta federazioak beregain hartuko du aurkariari jakinarazteko ardura. Idatzia aurkezteko epea ostiraleko 13:00 izango da. | - El club notificara por escrito a la FGPV su intención de no acudir a la disputa del partido correspondiente y ésta se responsabilizará de comunicar el hecho al equipo contrario. La fecha límite para presentar dicha notificación será el viernes a las 13:00 horas. |
| - Ostiraleko 13:00etatik aurrera, horrela jokatu beharko da: ez agertzea egin behar duen klubak dagokion partida hasi baino gutxienez bi ordu lehenago, SMS, whatsapp edo telegram bitartez jakinarazpen bat helarazi beharko dio aurkariari. Era berean, GEPFeri jakinarazpen horren kopia helarazi beharko dio, jasota gera dadin.<br>Halaber, aurkariari telefono deia egitea aholkatzen da, jakinarazpena jaso duela ziurtatu eta pilotalekura ez dela joango bermatzeko. | - A partir del viernes a las 13:00 horas, el club que no vaya a comparecer deberá de notificárselo al club contrincante vía SMS, whatsapp o telegram, con al menos dos horas de antelación al comienzo del partido correspondiente. Del mismo modo, deberá enviar copia de dicha notificación a la FGPV, para que quede constancia de la misma.<br>Asimismo, se recomienda llamar por teléfono al club contrincante para certificar que ha recibido el mensaje y evitar que acuda al frontón. |
| Protokolo hau betetzen ez duten ez agertzeak jakinarazi gabetzat hartuko dira eta, beraz, ez agertzea egin duen taldea lehiaketatik kanporatuko da. | Las incomparecencias que no cumplan este protocolo se considerarán no notificadas y, por tanto, supondrán la eliminación del equipo infractor. |
| GAUR EGUN DAGOEN BEZALA: | GAUR EGUN DAGOEN BEZALA: |
| Talderen batek lehiaketa uzten badu, jokatu dituen norgehiagoka guztiak ez dira kontuan hartuko sailkapena egiteko garaian. Era berean, talde horrek dagozkion diru-laguntza guztiak galduko ditu. | Si un equipo abandona la competición, los partidos jugados por dicho equipo no se tendrán en cuenta a efectos de clasificación; así mismo, este abandono conllevará la pérdida de cualquier tipo de subvención correspondiente a dicho equipo. |

| | |
|---|---|
| Edonola ere, lehiaketa uzte hori jardunaldi bakarra falta dela gertatzen bada, bai hartuko direla kontuan sailkapenari begira talde horrek ordura arte jokatutako partidak, eta azken jardunaldi hori ez agertzetzat joko da. | En cualquier caso, en el caso en que el abandono se produzca a falta de una jornada, si se tendrán en cuenta a efectos de clasificación los partidos jugados por dicho equipo hasta ese momento y se considerará como "incomparecencia" la última jornada. |

## 2. GIPUZKOAKO TXAPELKETA TRINKETEAN

| **8 – PARTIDEN PROGRAMAZIOA** | **8 – PROGRAMACION DE PARTIDOS** |
|---|---|
| GAUR EGUN DAGOEN BEZALA: | GAUR EGUN DAGOEN BEZALA: |
| 8a – GEPF-k egoitzan programatutako partidak | 8a – Partidos programados por GEPF en sede |
| Dagokien kluben arteko adostasuna tarteko, norgehiagokak elkarren artean adostu trinketa, egun eta orduan programatu ahal izango dituzte, beti ere araudi honen 7. artikuluari, jokatzeko baleko ordutegia, jarraiki. Federazioak ez ditu beregain hartuko bide horretatik sortutako gastuak. | De mutuo acuerdo entre los clubes contendientes, estos podrán programar los partidos en trinquete, fecha y horario elegidos por ellos, dentro de los límites establecidos en el artículo 7, horario hábil de competición, de este reglamento. La federación no se hará cargo, en ningún caso, de los gastos derivados de este acuerdo. |
| ERANTSI: | ERANTSI: |
| Edonola ere, programazio aldaketa horiek ezingo dira azken fasetan egin. | En cualquier caso, estos cambios de programación no se podrán dar en las fases finales. |

## 3. HERRIARTEKOA

| **2 – IZENEMATEAK** | **2 – INSCRIPCIONES** |
|---|---|
| GAUR EGUN DAGOEN BEZALA: | GAUR EGUN DAGOEN BEZALA: |
| Izen-ematea GEPFera helarazi beharko da eransten den inprimaki ofizialean edo honen fotokopian, parte hartuko duen herriko Euskal Pilotako Delegatuak sinaturik. | La inscripción deberá remitirse a la FGPV en el impreso oficial que se adjunta a tal efecto, o fotocopia del mismo, firmado por el delegado o la delegada local de la localidad inscrita. |
| Era berean, inskribatuko diren pilotari guztien izena, abizenak eta lizentzia zenbakia zehaztu beharko dira. Ez da inolaz ere onartuko espezialitatea jokatzen hasi aurretik izenik eman ez duen pilotaririk. | Se deberá de anotar el nombre, apellidos y nº de licencia de todos los pelotaris que se vaya a apuntar. En ningún modo se admitirá pelotari alguno que no haya sido inscrito antes del comienzo del campeonato de la correspondiente especialidad. |
| ALDATU: | ALDATU: |
| Izen-ematea dagokion inprimaki ofizialean egin beharko da. Bertan pilotari guztien izena, abizena eta lizentzia zenbakia idatzi beharko dira. Ezarritako epeetan izen-emandako pilotariak baino ez dira onartuko. Salbuespen bat onartuko da: izena eman duen pilotari batek lesio larri bat izango balu eta horrek herriaren parte hartzea ezinezkoa egingo balu, | La inscripción deberá de realizarse en el impreso oficial correspondiente. En ella se deberá de anotar el nombre, apellidos y nº de licencia de todos los pelotaris. No se admitirá pelotari alguno que no haya sido inscrito en los plazos establecidos, salvo en el caso de que algún pelotari inscrito se lesione de gravedad y esta lesión impida a la |

| | |
|---|---|
| lizentzia berri bat atera eta azken pilotari hori izen-ematean eransten utziko da. Edonola ere, pilotari berri horrek partaideen auzotasun administratiboari buruzko 2B atala bete beharko du. | localidad tomar parte en la competición. En dicho caso, se permitirá tramitar una nueva licencia e inscribir a dicho pelotari, que deberá de cumplir el apartado 2B, referente a la vecindad administrativa. |

## 4. 4 1/2ko UDABERRI SARIA

| **2 – IZENEMATEAK** | **2 – INSCRIPCIONES** |
|---|---|
| GAUR EGUN DAGOEN BEZALA: | GAUR EGUN DAGOEN BEZALA: |
| Pilotariek adinez dagokien kategorian edo goragoko batean joka dezakete, eskuko jokamoldetan salbu, dagokien kategorian edo hurrengoan, soilik, jokatu ahal izango dutelarik. | Se podrá participar en la categoría que por edad corresponda o en categoría superior, salvo en las especialidades de mano donde sólo se podrá jugar en la que por edad corresponda o en la inmediatamente superior. |
| Gogorarazten da lehiaketa honi dagokionean ez dela 22 urtez azpiko kategoriarik kontenplatzen. Beraz, eskuan jubenilek nagusi kategorian jokatu ahal izango dute. | Se recuerda que a efectos de esta competición no se contempla la categoría sub 22. Por lo tanto, en mano los juveniles podrán tomar parte en la categoría senior. |
| ALDATU: | ALDATU: |
| Pilotariek adinez dagokien kategorian edo hurrengoan joka dezakete. | Se podrá participar en la categoría que por edad corresponda o en la inmediatamente superior. |
| Gogorarazten da lehiaketa honi dagokionean ez dela 22 urtez azpiko kategoriarik kontenplatzen. Beraz, jubenilek nagusi kategorian jokatu ahal izango dute. | Se recuerda que a efectos de esta competición no se contempla la categoría sub 22. Por lo tanto, los juveniles podrán tomar parte en la categoría senior. |
| GAUR EGUN DAGOEN BEZALA: | GAUR EGUN DAGOEN BEZALA: |
| Nahi adina espezialitatetan parte hartu ahal izango da. Nolanahi ere, jardunaldi berean ezingo da eskuz banaka eta binaka jokatu. | Se podrá tomar parte en todas las especialidades que se desee. No obstante, en una misma jornada no se podrá jugar a mano individual y mano parejas. |
| Era berean, jardunaldi batean ezingo da espezialitate bereko norgehiagoka bat baino gehiago jokatu. | Del mismo modo, no se permitirá disputar más de un partido de la misma especialidad en la misma jornada. |
| KENDU | KENDU |
| GAUR EGUN DAGOEN BEZALA: | GAUR EGUN DAGOEN BEZALA: |
| Txapelketa hau jokatzen duen pilotariak Herriartekoa ere jokatu ahal izango du, hori bai, kanporaketa bakar bat (joaneko eta/edo itzuliko norgehiagokak). | Los pelotaris que disputen este Torneo, podrán jugar así mismo el Torneo Interpueblos, pero exclusivamente en una única eliminatoria (partidos de ida y/o vuelta de la misma). |
| Kanporaketa bat baino gehiagotan jokatuz gero, ezingo du Udaberri Txapelketara itzuli. | En el caso de disputar más de una eliminatoria, no podrán volver a jugar en el Torneo Udaberri. |
| ALDATU: | ALDATU: |
| Txapelketa hau jokatzen duten pilotariek Herriarteko Txapelketaren bina partida jokatu ahal izango dituzte, gehienera. Hortik aurrera, bi txapelketa horietako baten alde egin beharko | Los pelotaris que disputen este Torneo, podrán jugar así mismo hasta un máximo de dos partidos en el Torneo Interpueblos. A partir de ese momento, deberán de optar |

| | |
|---|---|
| dute.<br><br>Herriarteko Txapelketan hirugarren partida bat jokatuz gero, Udaberri Sarian ezingo dute berriz jokatu. | por uno de los campeonatos.<br><br>En el caso de disputar un tercer partido en el Torneo Interpueblos no podrán volver a jugar en el Torneo Udaberri. |

## 5. ERRENDIMENDUKO TXAPELKETAK

| | |
|---|---|
| **10 – SAILKAPENAK ETA ZIGORRAK** | **10 – CLASIFICACIONES Y SANCIONES** |
| GAUR EGUN DAGOEN BEZALA:<br><br>1.- Berdinketa liga fasean:<br>a) Berdinduta dauden taldeek elkarren aurka jokatu dituzten partidetako puntuen batura. Beste taldeen aurkako partidak ez dira kontuan hartuko.<br>b) Berdinduta jarraitzen duten taldeek elkarren aurka jokatu dituzten partidetako aldeko eta kontrako tantoen arteko kenketan emaitza hobea duenaren alde.<br>c) Berdinketa mantenduko balitz, ligan jokatutako partida guztien aldeko eta kontrako tantoen arteko kenketan emaitza hobea duenaren alde.<br>d) Azkenik, partida guztietan taldea ordezkatu duten pilotari guztien adinaren bataz besteko gaztearenaren alde egingo da sailkapena.<br><br>2.- Berdinketa kanporaketetan:<br>a) kanporaketako partidetako aldeko eta kontrako tantoen diferentziarik handiena.<br>b) Berdinketak jarraituko balu, hasierako ligan hobetu sailkatu den taldearen alde erabakiko da.<br>c) Azkenik, kanporaketako partida guztietan taldea ordezkatu duten pilotari guztien adinaren bataz besteko gaztearenaren alde egingo da sailkapena.<br><br>ALDATU:<br><br>1.- Berdinketa liga fasean:<br>a) Berdinduta dauden taldeek **elkarren aurka** jokatu dituzten partidetako **puntuen** batura. Beste taldeen aurkako partidak ez dira kontuan hartuko.<br>b) Taldeek **elkarren aurka** jokatu dituzten partidetako aldeko eta kontrako **jokoen** arteko kenketan emaitza hobea duenaren alde.<br>c) Taldeek **elkarren aurka** jokatu dituzten partidetako aldeko eta kontrako **tantoen** arteko kenketan emaitza hobea duenaren alde.<br>d) Taldeek **ligan** jokatutako partida guztien aldeko eta kontrako **jokoen** arteko kenketan emaitza hobea duenaren alde.<br>e) Taldeek **ligan** jokatutako partida guztien aldeko eta kontrako **tantoen** arteko kenketan emaitza hobea duenaren alde.<br>f) Azkenik, partida guztietan taldea ordezkatu duten pilotari | GAUR EGUN DAGOEN BEZALA:<br><br>1.- Empate en la liga:<br>a) Por la suma de los puntos obtenidos en los partidos jugados entre ellos, como si los demás no hubieran participado.<br>b) Por la mayor diferencia de los tantos a favor y en contra en los partidos jugados entre los equipos que continúan empatados.<br>c) Si persistiera el empate, se atenderá a la mayor diferencia de tantos a favor y en contra en todos los encuentros jugados en la liga inicial.<br>d) Por último, se establecerá teniendo en cuenta el menor promedio de edad de los participantes que hubieran representado al equipo en todos los partidos.<br><br>2.- Empate en eliminatorias:<br>a) Por la mayor diferencia de los tantos a favor y en contra en los partidos de eliminatoria.<br>b) Si continuase el empate, la clasificación se establecerá a favor del equipo mejor clasificado en la liga inicial.<br>c) Por último, se establecerá teniendo en cuenta el menor promedio de edad de los participantes que hubieran representado al equipo en los partidos de la eliminatoria.<br><br>ALDATU:<br><br>1.- Empate en la liga:<br>a) Por la suma de los **puntos** obtenidos en los partidos jugados **entre ellos**, como si los demás no hubieran participado.<br>b) Por la mayor diferencia de los **jokos** a favor y en contra en los partidos jugados **entre ellos**, como si los demás no hubieran participado.<br>c) Por la mayor diferencia de los **tantos** a favor y en contra en los partidos jugados **entre ellos**, como si los demás no hubieran participado.<br>d) Por la mayor diferencia de **jokos** a favor y en contra en todos los encuentros jugados en la **liga inicial**.<br>e) Por la mayor diferencia de **tantos** a favor y en contra en todos los encuentros jugados en la **liga inicial**.<br>f) Por último, se establecerá teniendo en cuenta el menor promedio de edad de los participantes que hubieran representado al equipo en todos los partidos. |

| | |
|---|---|
| guztien adinaren bataz besteko gaztearenaren alde egingo da sailkapena.<br><br>2.- Berdinketa kanporaketetan:<br>a) kanporaketako partidetako aldeko eta kontrako jokoen diferentziarik handiena.<br>b) kanporaketako partidetako aldeko eta kontrako tantoen diferentziarik handiena.<br>c) Berdinketak jarraituko balu, hasierako ligan hobetu sailkatu den taldearen alde erabakiko da.<br>d) Azkenik, kanporaketako partida guztietan taldea ordezkatu duten pilotari guztien adinaren bataz besteko gaztearenaren alde egingo da sailkapena. | <br><br>2.- Empate en eliminatorias:<br>a) Por la mayor diferencia de los jokos a favor y en contra en los partidos de eliminatoria.<br>b) Por la mayor diferencia de los tantos a favor y en contra en los partidos de eliminatoria.<br>c) Si continuase el empate, la clasificación se establecerá a favor del equipo mejor clasificado en la liga inicial.<br>d) Por último, se establecerá teniendo en cuenta el menor promedio de edad de los participantes que hubieran representado al equipo en los partidos de la eliminatoria. |
| GAUR EGUN DAGOEN BEZALA:<br><br>**12 – DIZIPLINA ERREGIMENA**<br><br>125/2008 Dekretuak 22. artikuluan xedatutakoari jarraiki, ondoko hauek izango dute diziplina arauak betearazteko ahalmena, beren eskumenaren barrutian:<br><br>a) lehen instantzian, GEPFen Lehiaketa Batzordeak, GFAren eskuordetza.<br><br>b) bigarren eta azken instantzian, Kirol Justiziako Euskal Batzordeak. Horren ebazpenak amaiera emango diote administrazio bideari eta, arau jurisdikzionalei jarraiki, horien aurkako errekurtsoa aurkeztu daiteke.<br><br>ALDATU:<br><br>**12 – LEHIAKETA ETA DIZIPLINA ERREGIMENAK**<br><br>GEPFeren Lehiaketarako Epaile Bakarra da eskumena duen organoa txapelketa honetan **lehiaketari** buruz gertatzen diren gorabehera guztiak jakiteko.<br><br>Hartara, gai honen inguruan sortzen diren auziak, GEPFeren Lehiaketarako Epaile Bakarrak erabakiko ditu, araudi honetan jasotakoa betez; eta araudi honetan jaso gabe dauden kasuetan, beharrezkotzat jotzen duen informazio guztia bilduz ebazpena eman aurretik.<br><br>GEPFeren Lehiaketarako Epaile Bakarrak hartzen dituen erabakiekin amaitutzat ematen da federazio bidea, eta errekurtsorik aurkeztu nahi izanez gero, Euskadiko Kirol Justiziaren Batzordera jo beharko da.<br><br>391/2013 Dekretuak 4. artikuluan xedatutakoari jarraiki, ondoko hauek izango dute **diziplina** arauak betearazteko ahalmena, beren eskumenaren barrutian:<br><br>a) lehen instantzian, GEPFeren Lehiaketa Batzordeak, GFAren eskuordetzan. | GAUR EGUN DAGOEN BEZALA:<br><br>**12 – REGIMEN DISCIPLINARIO**<br><br>De acuerdo a lo establecido en el artículo 22 del Decreto 125/2008, corresponde el ejercicio de la potestad disciplinaria deportiva, dentro del ámbito de sus respectivas competencias:<br><br>a) en primera instancia, al comité de disciplina de la FGPV, por delegación de DFG.<br><br>b) en segunda y última instancia, al Comité Vasco de Justicia Deportiva, cuya resolución agotará la vía administrativa y podrá ser objeto de recurso de acuerdo con las reglas jurisdiccionales aplicables.<br><br>ALDATU:<br><br>**12 – REGÍMENES DE COMPETICION Y DISCIPLINA**<br><br>El Juez Único de Competición de la FGPV es el órgano competente para conocer cuántos asuntos se susciten durante el presente Torneo y que versen sobre aspectos de **competición**.<br><br>En estos casos, el Juez Único de Competición de la FGPV resolverá cuantos litigios o asuntos se susciten conforme a lo previsto en este Reglamento y, en lo no previsto, teniendo presentes los principios informadores que considere que resultan de aplicación en relación con cada supuesto.<br><br>Las decisiones del Juez Único de Competición de la FGPV, que agotan la vía federativa, serán recurribles ante el Comité Vasco de Justicia Deportiva.<br><br>De acuerdo a lo establecido en el artículo 4 del Decreto 391/2013, corresponde el ejercicio de la potestad **disciplinaria** deportiva, dentro del ámbito de sus respectivas competencias:<br><br>a) en primera instancia, al comité de disciplina de la FGPV, por delegación de DFG. |

| | |
|---|---|
| b) bigarren eta azken instantzian, Kirol Justiziako Euskal Batzordeak. Horren ebazpenek amaiera emango diote administrazio bideari eta, arau jurisdikzionalei jarraiki, horien aurkako errekurtsoa aurkeztu daiteke. | b) en segunda y última instancia, al Comité Vasco de Justicia Deportiva, cuya resolución agotará la vía administrativa y podrá ser objeto de recurso de acuerdo con las reglas jurisdiccionales aplicables. |